

6 mantangorri




AZOKA

**LIBURUA****Izenburua:** 'Dinosaura eta sekua'.**Testua:** Herminia Mas. **Marrazkiak:** Francesc Rovira.**Orrialde kopurua:** 48 orrialde, koloretan. **Bilduma:**Bizar Gorri. **Argitaletxea:** Arretxeko Haritza.**LIBURUA  
'Eskola sorgindua'**

Estibalitz lo geratu da Astra-buduako eskolako komunean. Estibalitz izan ezik, denak etxera joan dira, baina eskolatik kea ateratzen da. Sutan ote dago? Eta neskatila? Eskolara deituta, ahots metaliko batek erantzuten du. Suhiltzaileak eta ertzainak joango dira erreskatera. Laster hasiko dira sorginkeria. Itxida goen escola batean zer egiten dute loro batek, orkatz kume batek, katu-gizonak eta haren katu miaukariak?

**Iñaki Zubeldia**  
**Estibalitz Jalon**  
Argitaletxea: **Ibaizabal**

**LIBURUA  
'Hartz marmartia'**

Bitxia zen basoan gertatzen ari zena. Anartz hartzat atsegina zen lehenago, baina azkenaldian umore txarrez zegoen, beti marmarka eta oihuka. Zergatik umore aldaketa hori? Basoko animaliek batzar bat antolatu zuten, Anartzen arazoa zein zen argitzeko.

Haserrearri buruzko ipuina da, Sentipuinak bildumako hamahirugarrena. Miren Agur Meabe idazleak euskaratu du Ibarrolaren istorioa.

**Begoña Ibarrola**  
**Jose Luis Navarro**  
Argitaletxea: **Elkar**

**Herminia Mas**

IDAZLEA

# «Pentsatzeko bidea ematen duen edozein istoriok hezi egiten du»

Dinosauroak nagusi ziren garaian, bestelako izaki batzuk agertzen hasi ziren munduan: zuhaitzak. Hasieran, harriduraz begiratu zieten dinosauroek hosto berdeko erraldoi handi eta berezi haiiei. Laster hasi ziren zurrumurru arraroak zabaltzen. Mega txiki dinosauroaren belarrietara iritsi ziren zurrumurru haietan, eta pentsatu zuen dibertigarria izan zitekeela topatzen zituen zuhaitz guztiak suntsitzea.

**Dinosauroen garaiko istorio bat kontatu duzu.**

Bai, dinosauroen garaian kokatzen da liburuko istorioa. Duela hirurogei milioi urte inguru, lehen zuhaiatzak agertzen hasi ziren paduren eta zingiren ingurueta. Dinosauroek poiez eta begirunez hartu zituzten erraldoi hosto berdedun isil haietan eta haien anai-arreba txikiak, zuhaixkak. Laster hasi ziren, baina, haien inguruko gauzak esaten: ez

zutela ezer esaten, ez zirela mugitzen... Liburuko protagonistak, Mega txiki dinosauroak, helduen zurrumurru haietan entzun eta sinistru egin zituen, eta inguruan zituen zuhaitz guztiak botatzen eta suntsitzen hasi zen. Helduek esandakoie ez zien jaramonik egiten. Egun batean, baina, guztiak elkartu ziren irakaspen handi bat emateko.

**Mega txiki beldurgarri samarra da.**

Bai, harremanak izateko indarkeriaz baliatzen den dinosauro bat da Mega txikia. Ez dio inori eta ezeri begirunerik gordetzen. Ez du inoren esana aditzen, eta uste du zuhaitzak lurrera botaz guztien begirunea irabaziko duela. Indarkeria erabiliz ausartagoa dela pentsatzen du, eta uste du zuhaitzak

gaizki trata ditzakeela bestelakoak direlako, aurre egiten ez diotelako eta defendatzen ez direlako. Kementsua izan beharrean beldurgaria dela uste dute guztiekin.

**Irakaspen garrantzitsua jasotzen du, ordea.**

Bai, azkenean, norbera baino indartsuagoa den norbaitekin topo egin dezakeela ikasten du.

**Mezu garrantzitsuak helarazi nahi izan dituzu istorio simple honekin?**

Indarkeria ez dakarrela ezer onik erakutsi nahi izan dut, eta, era berean, izaki guztiak errespetatu behar direla: animaliak, landareak...

**Liburu hezikgarria da, ezta?**

Indarkeriaren erabileraren inguruau hausnartzeko ipuin bat izan nahi du. Haurrei hausnartzeko eta pentsatzeko bidea ematen dien edo zein istoriok edo ipuin nek hezi egiten du.

**Ilustrazioak ederrak dira.**

Liburuaren azala ikusi nuanean, zurrara handia eragin zidan: halako dinosauro handia... Haurrei niri bezainbat gustatzea espero dut.

